

Xanti Aiestaran Oiartzabal *Donostia, Gipuzkoa (1932)*

Aurkibidea

Biografia

Donostiako Martutene auzoko Goiatz Erribera baserri ederrean jaio zen 1932an. Baserria erriberako lur emankorren erdian egonik, txikitatik aritu zen baserriko lanean, baratzegintzan batik bat. Erretreta hartu arte egunero joaten zen Donostiako Bretxako azokara, kamioneta batean azken urteetan, baina Urumeako tranbian gaztetan. Horretarako, ordea, egunero-egunero pasa behar izaten zuten errioa etxe aurreko txanela pasabidetik. Errioko bizitza, txanela zein gabarrak, txanela-pasabideak eta errioko arrantza nahiz istorioak izan ditu, beste askoren artean, hizketagai. Goiatz Erribera parean, errioz bestaldean bizi zen elkarriketa egin genionean, Martutene auzoko etxebizitza-eraikin berri batean, baina artean egunero egiten zuen baserrirainoko joan-etorria.

Zintak

DON-158

- **Proiektua:** Behe Urumearen Memoria Historikoa
- **Elkarriketatzailea(k):** Agirresarobe, Asier - Tellabide, Josu

- **Data:** 2013-11-30
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Agirresarobe, Asier

Aiestaran Oiartzabal, Xanti | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com